

4

Zubigintza, herri erakundeen eta gizarte erakundeen artean

Mikel Irizar

Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendaria

mikelirizar@gipuzkoa.eus

Sarrera-data: 2017-04-03 | Onartze-data: 2017-04-28

Laburpena. Artikulu honetan aztertuko da Gipuzkoako Foru Aldundiko (GFA) Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaritzako taldeak eta euskararen gizarte erakundeen ordezkariak abian jarri duten partaidetza-prozesua. Ekimen horrekin identifikatu nahi dira zer-nolako aukerak dauden euskaratik hizkuntza-bizikidetzaren inguruan aurrera egiteko. Horrela, ondorioztatzen da Nafarroan eta Iparraldean gertatzen ari diren aldaketa administratiboak eta erakunde publiko eta sozialen artean antzematen den hurbilketek lagungarriak izan beharko luketela euskararen aldeko aktibazioan urrats kualitatiboak egin daitezten. Proposamen hau Euskaltzaleen Topaguneak antolaturiko XIV. Topaldia: “Euskararen herria: zubiak eta palankan” aurkeztu zen 2017ko urtarrilaren 25ean. • **Hitz gakoak:** *Hizkuntza-berdintasuna, biziberritze-prozesua, euskararen gizarte erakundeak, euskararen erakunde publikoak.*

Abstract. This paper analyses the engagement process set in motion by the management team at the Gipuzkoa Provincial Council's Language Equality Department and representatives of social entities working in favour of the Basque language. The aim is to identify opportunities for improving peaceful coexistence between languages within the Basque language promotion field. The conclusion reached is that the administrative changes taking place in Navarre and the Northern Basque Country and the more fluid relations currently being established between public and social organisations should prove useful for making qualitative headway in favour of the Basque language. This proposal was presented on 25 January, 2017, at the 14th Topaldia gathering entitled 'The nation of the Basque language: bridges and drivers'. • **Key words:** *Language equality, revival process, social entities working to promote the Basque language, public entities working to promote the Basque language.*

ATARIKOA

I
2017ko urtarrilean Euskaltzaleen Topaguneak urtean behin ohi duen Topaldia jardunaldia antolatu zuen. Aurtengoaren izenburua esanguratsua zen: “Euskararen herria: zubiak eta palankak”. Azken urte gutxitan gertatu diren hainbat aldaketa aztertu nahi ziren jardunaldian: Nafarroako aldaketa politikoa eta Iparraldeko egituratze administratiboa; han eta hemen gertatzen ari diren hurbiltze prozesuak erakunde publiko eta sozialen artean; eta, oro har, lankidetzarako sumatzen den giroa, aspaldiko partez bide berriak jorratzeko aukera ugari ematen duena.

Jardunaldian, hain zuzen, antzeman nahi ziren aldaketa horien ondorioz egon daitezkeen aukerak euskaratik eta hizkuntza bizikidetzaren inguruan sareak josteko, zubiak eraikitze, konplizitateak sortzeko, alianztzak egonkortzeko... Niri eskatu zidaten azaltzeko Gipuzkoako Foru Aldundian daramagun partaidetza prozesua euskararen gizarte erakundeekin. Idatzi hau hitzaldi hartan oinarritzen da, baina erantsita dauzka oso dinamikoa den prozesuak Topaldia jardunaldia egin zen urtarriletik hona eman dituenak.

Aitor dezadan sano: ez da BAT aldizkarian ohikoa den maila zientifikoko idatzia; gehiago da bidai baten kronika, GFAko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaritzako taldea eta euskararen gizarte erakundeen ordezkariak ausardiaz eta zintzotasunez hasi duguna, nora iritsiko garen oso ondo jakin gabe. Barka ditzan irakurleak kontakizunaren gabeziak.

NONDIK GATOZ?

I
Iragan gogor batetik gatoz, ekimen txalogarri askorekin batera min eta gorroto asko eragin dituen iragan batetik. Ez gara oraindik ondo jabetzen zenbateraino iragan horrek orbainak utzi dizkigun buru-bihotzetan. Baita dialektikan eta hizkeran ere.

Badira hilabete batzuk mahainguru baterako gonbita jaso nuela, *erakundeen eta euskalgintzaren* arteko lankidetzaz aritzeko. Nire lehen txandan azpimarratu nuen izenburuari berari zerion iraganeko marka. Orduan ekarri nuen gogora estrainekoz Txiberta; gero Topaldian berriro erabili nuen.

Txiberta hotel bat da, Angelun dagoena. Han egin ziren hilabetez 1977ko udaberrian hainbat bilera, indar abertzale politiko eta sindikalen artean; esploratu nahi ziren Espainian gertatzen ari zen bilakaera politikoan jokabide bateratua hartzeko aukerak. Ez zen batasunik izan: batzuk ho-

***Iragan gogor
batetik gatoz,
ekimen
txalogarri
askorekin batera
min eta gorroto
asko eragin
dituen iragan
batetik.***

Batzuentzat erakunde ziren soilik erakunde publikoak, eta horiek ziren beti susmagarri. Besteentzat gizarte dinamikak ziren beti dinamika politikoak, beraz, hauek ere beti susmagarri.

Beharrezkoa dugu armagabetze dialektikoa, elkarri min emateko eraiki ditugun argumentuak eta terminologia suntsitzeko ordua iritsi da.

betsi zuten Espainiak eskainitako erakundeak baliatzea autogobernuan aurrera egiteko; besteek uko egin zieten erakunde horiei eta gizarte mugimenduan jarri zuten ekimen politikoaren lehentasuna.

Ordutik hona pasatu diren berrogei urteetan oso presente egon da gure gizartean Txibertan bistaratutako lubakia. Batzuentzat *erakunde* ziren soilik erakunde publikoak, eta horiek ziren beti susmagarri. Besteentzat *gizarte dinamikak* ziren beti dinamika politikoak, beraz, hauek ere beti susmagarri. Urteotan zubigintzan ibili garenok majo sufritu dugu lubakiaren gogorra.

Ondorio terminologikoak bistakoak dira lehen aipatu dudan dikotomian. *Erakundeetan* euskararen alde egiten dena beti da motza eta intentzio ilunekoa. Hain zuzen horregatik *euskalgintza* da soilik gizarte eragileen multzoa, benetan eragiten duten bakarrak. Sailkapen honen arabera bitxikeria bat gertatu zait niri: 30 urtez euskararen gizarte dinamikan ibili ondoren, duela bi pasatu nintzen gauza bera indar handiagoz egitera erakunde publiko batean; beno, ba harrezkero ez nintzateke euskalgintzakoa!

Duela egun gutxi gertatu da gurean armagabetze bat, arma benetakoe kin. Hori bezain beharrezkoa dugu armagabetze dialektikoa, elkarri min emateko eraiki ditugun argumentuak eta terminologia suntsitzeko ordua iritsi da. Lehengo adibidean, Kontseiluak berak eskaini zuen formula egokia bere izena finkatu zuenean: *Euskararen gizarte erakundeen* Kontseilua. Erakundeak badaude —noski!— gizartean ere; eta euskararen alde ari dira —noski!— erakunde publikoak ere. Termino horietan, badaude *euskararen gizarte erakundeak* eta badaude *euskararen erakunde publikoak*; guztien artean osatzen dute *euskalgintza*. Horrela esanda, guztiz logikoa da bien arteko lankidetzaz, eta beharrezkoa lankidetzaz hori ahalbidetuko duen zubigintza.

GFA: LANKIDETZA GIZARTE ERAKUNDEEKIN

I

2015

2015eko hauteskundeen ondorioz Gipuzkoan osatu zen foru gobernuak proposatu zidan hizkuntzaren ardura hartzea. Diputatu nagusiak azaldu zidan nahi zutela gobernuan “euskararen gizarte mugimenduko kide bat, bi aldeen artean zubigintza eraikitze” Gainera, eskatu zidan enkargu hori betetzea “irekitasunez eta anbizioz”. Esan beharrik ez dago, lubaki garaian hainbeste sufritu ondoren, poz handiz hartu nuela garai hura gainditzen laguntzeko aukera.

Lehen urratsa izan zen gizarte erakundeekin hitz egitea, eta laguntza eskatzea zuzendaritzaren plan estrategikoaren lanketan. Adierazi behar dut lehen unetik somatu nuela solaskide ia guztien partetik prestutasun handia lankidetzarako. Horrek animatuta eman nuen hurrengo urratsa: lankidetzaren norabidea elkarrekin hausnartzeko proposamena egin nien gizarte erakundeei, partaidetza prozesu baten bidez; bitartean, ez nuen nire kabuz aurrekontuan aldaketarik egingo.

Pentsatu behar da, alde batetik, ohikoa bihurtu dela gobernu bakoitzak bere kabuz egitea moldaketak aurrekontuan. Bestalde, 2015ean GFAn egon zen erreleboa ez zen nolana hikoia izan: oposizioa gobernura eta gobernua oposiziora aldarazi zituen hauteskundeen emaitzak. Bada, hala ere, gure zuzendaritzaren aurrekontua ez zen aldatu. Itxaropen ona zegoen 2016rako.

Bazen aurreko gobernuak sortutako beste ekimen baliagarri bat: Euskararen Foroa. Euskararen gizarte erakundeen 30 ordezkari osatua da, diputatu nagusiak izendatzen ditu kideak, eta aldundiaren aholku organu bat da. Lehen bileran ikusi genuen tresna egokia izan zitekeela lankidetzan egindako urratsak finkatzen joateko; horregatik, pentsatu genuen urtean behin biltzeko erritmoa azkartzea eta urtean bi bilera egitea.

2016. Palankak 1

Aldundiko Hiritarren partaidetzako zuzendaritzaren laguntza bikaina izan genuen partaidetza prozesua antolatzeke. Nahi genuen zerbait berri zailea egin, jarritako erronkaren neurrikoa. Hain zuzen, planteatu genuen erronka oso anbiziotsua zelako: “Euskararen biziberritze prozesuan ari garen erakunde eta eragileok **zer egin behar dugu diferente eraginkorrago izateko?**”

Ordurako oso zabaldua zegoen, baita gure diputatu nagusiaren diskurtsoan ere, ideia hau: euskararen prozesua bidegurutze batera iritsi da; orain arte egin dugunak bere horretan ez du bermatzen etorkizunean emaitza antzekoak lortuko ditugunik; zerbait ezberdina egin beharko da iraganeko erritmoei eusteko.

Horregatik nahi izan genuen partaidetza prozesua bera metodologia aldetik ere ezberdina izatea, partaideak ohiko moldeetatik atera eta jarri berritzaileetara eramatea. EMUNi esleitu genion ardura eta erantzun bikaina eman zuen.

Prozesuaren irekiera-hitzaldia Antonella Brogliak eman zuen, TED me-

Lehen urratsa izan zen gizarte erakundeekin hitz egitea, eta laguntza eskatzea zuzendaritzaren plan estrategikoaren lanketan. Adierazi behar dut lehen unetik somatu nuela solaskide ia guztien partetik prestutasun handia lankidetzarako.

**Euskararen
prozesua
bidegurutze
batera iritsi da;
orain arte egin
dugunak bere
horretan ez du
bermatzen
etorkizunean
emaitza
antzekoak
lortuko
ditugunik;
zerbait ezberdina
egin beharko da
iraganeko
erritmoei
eusteko.**

**Bereziki larria
izan da aurreko
hamarkadan:
aurrekontuen
uzkurtzearekin
batera
euskararen
poltsak ere
murriztu
direnean,
eragileen
anbizioa are
gehiago erori da,
hainbat kasutan
iraupenera
mugatzeraino.**

todoan eta berrikuntza teknologikoan aditua. Primeran lortu zuen jarritako helburua: entzuleak mugiarazi egin gintuen, harrituta geratu ginen margotu zigun etorkizunaren aurrean, baita Antonellaren hitz egiteko moduarekin berarekin.

Goiz osoko lan saiotan egin genuen prozesua 2016ko udaberrian, meditazione eta guzti. Berrogei ordezkari inguru ginen lehen saioan, eta berrogei inguru azkenean; fidelitasun horrek argi adierazten ditu bai partaideen jarrera ona eta baita dinamikaren interesa.

Azken saioaren amaieran identifikatuak genituen 30 palanka berrikuntzarako: material oso ona lanean jarraitzeko, baina ez oraindik aski zehatza aurrekontuetara eramateko. Hala ere, nabari zen airean sentimendu bat argia: euskararen eragileen aldetik ezinbestekoa ikusten zen ireki beharra, esparru berrietara iritsi beharra, sektore berrietan eragiteko premia, jarduerak eta finantzazioa dibertsifikatzekoa... Giro horretatik sortu zen Putzuberri ekimena.

2016. Putzuberri I

Nire zuzendaritzak 6 milioi pasatxoko aurrekontua dauka; horietatik bat bideratzen da langileon gastua estaltzera, eta beste guztia erabiltzen da kanpo zerbitzua ordaintzeko eta diru laguntzak emateko. Aldundiaren aurrekontu osoa 800 milioitik gorakoa da, eta horietatik 100 inguru izango dira pertsonal gastua, gainontzeko guztia transferitu egiten da jardun ekonomikora, faktura edo deialdi bidez.

Bistan da euskararen gizarte erakundeek soilik Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaritzari begiratzen badiote, beti ikusiko dutela putzu txiki bat. Baita bere neurria bikoiztuko balitz ere! Euskararen poltsa berezituak sortzea urrats garrantzitsua izan zen duela 30 urte, aurrez kontuan hartzen ez ziren ekimen batzuk sustatzeko. Baina denboraren joanean zepo ere bihurtu direlakoan nago.

Euskararen poltsa publikoekin hasieran sustatu zena gerora mugatuz joan da. Poltsa berezia ezin zenez eten gabe hazi, praktikan gertatu da eragileen anbizioa moldatu egin dela poltsaren neurrira. Hau bereziki larria izan da aurreko hamarkadan: aurrekontuen uzkurtzearekin batera euskararen poltsak ere murriztu direnean, eragileen anbizioa are gehiago erori da, hainbat kasutan iraupenera mugatzeraino.

Behin hasita, utz dezadan jasota beste akats bat, hau nagusiki erakunde publikoei dagokiena. Diru laguntzak emateko irizpideak finkatzerakoan,

printzipio bat erabili da sistematikoki: “ez diogu gizarte eragile bati dirurik emango pertsiana altxa dezan; emango diogu zerbitzu edo produktu jakinak eman ditzan”.

Printzipio honen aplikazioak arazo bat sortu du: biziberritze prozesuan funtsezkoak diren funtzio batzuk babes gabe utzi ditu; areago, funtzio hori betetzeko sortu ziren eragileak bultzatu ditu zerbitzua ematera, enpresa bihurtzera, euskararen beste eragileekin lehiatzera. Afrikako lehorteetan nola, ur putzu gero eta txikiagoan pilatu dira euskararen gizarte eragileak, bakoitzak bere iraupena helburu, eta ez dute denbora asko behar izan elkarri erasoka hasteko.

Sinetsita nago biziberritze prozesuaren bidegurutzera, apalaldia edo krisia ez dagoela oso aparte egoera bihurri honetatik.

Hain zuzen horregatik deitu genion **Putzuberri** asmatu genuen dinamika berriari.

Etsipenez egoera onartu eta kanibalismoan jarraitu baino, ezinbestekoa ikusten genuen eragileak elkarrekin saiatzea ur putzu berriak bilatzen, putzu handietara iristeko estrategia kolaboratiboak lantzen, bidean anbizioa berreskuratu eta lehia irekian garaile izan arte.

Idea honekin egin genuen hurrengo urratsa.

Uda aurretik bildu genuen Euskararen Foroa, partaidetza prozesuan egindako lana aztertze eta ondorioak finkatzeko. Orduko aurkezpenak azalpen esanguratsua du: *Partaidetatik lankidetzara*; alegia, partaidetza prozesuak sortutako aukeren gainean lankidetzaz zehatzak abiatzeko aurreikuspena.

Zuzendaritzak proposamen bat eraman zuen bilerara: **Putzuberri** lantaldea sortzea, Euskararen Foroaren azpitalde bezala, euskararen poltsatik harago Aldundi osoaren aurrekontuari erreparatzen hasteko, aukera bila. Dinamizazioa berriro EMUNi eskatu genion, partaidetza prozesuaren ildoari jarraitze aldera.

Ekimena kokatu genuen diputatu nagusiaren kabinetearen baitan, gure zuzendaritzak eta kabineteko idazkaritza teknikoak sustatuta. Honek sarbide argia eta indartsua eman zion ekimenari Aldundian. Ez zen ‘euskaratik’ sustatutako ekimen bat, baizik ‘diputatu nagusiaren alorretik’; ez zen kanpoko talde bat, baizik foru organo baten lantaldea; eta ez zen gai sektoriala, baizik ikerketa aurreratu bat, aldundiaren kuadeaketa eredu berria definitzeko lagungarria.

Ur putzu gero eta txikiagoan pilatu dira euskararen gizarte eragileak, bakoitzak bere iraupena helburu, eta ez dute denbora asko behar izan elkarri erasoka.

Ezinbestekoa ikusten genuen eragileak elkarrekin saiatzea ur putzu berriak bilatzen, putzu handietara iristeko estrategia kolaboratiboak lantzen, bidean anbizioa berreskuratu eta lehia irekian garaile izan arte.

Erakunde publikoen eta gizarte erakundeen arteko lankidetzan bada askatu beharreko korapilo handi samar bat: diru laguntza sistemaren mugak nola gainditu, lankidetzaren egonkortzeko eta juridikoki bermatzeko.

Laneko prozeduran, lehen lana izan zen Aldundiaren aurrekontu osoari begirada orokor bat botatzea, behar adina informazio eskatuta, antzemateko non egon zitezkeen aukerarik onenak euskaratik erantzun lehiakorrak emateko. Lanaren amaieran lau zuzendaritza izan ziren hautatuak, sakontze lanetarako: Funtzio publikoa, Gizarte Politika, Ekonomia sustapena eta Berrikuntza.

Hautatutako lau zuzendaritzak bisitatzeko helburuarekin, bigarren urratsa izan zen lau aurrekontu horiek xeheago aztertzea, aukera zehatzagoren bila. Horrekin batera, ariketa interesgarri bat egin zen: bisitatu beharreko zuzendariei eskaintzeko *produktua* edo *katalogoa* definitzeko ahalegina, zer zeukaten euskararen eragileek eskaintzeko Aldundiko zuzendariei. Ez da ahaztu behar, bisiten helburua zela elkar ezagutzea, solaskidetzaren eraikitzea, irizpideak trukatzeko; finean, lankidetzaren publiko/sozialari oinarria jartzea. Beraz, alde biko eragina planteatzen zen, informazio eta konfiantza salerosketa moduko zerbait.

Ekimenaren lehen fase honetan emaitzak ez dira distiratsuak izan, ez zen halakorik espero ere. Harreman batzuk sortu dira, jarraipena izango dutenak; kontu zehatz batzuk ere esploratzen ari dira. Ondorio nagusia da jarrerak aldatzen hasi direla bi aldeetan. Lan jarraitua beharko da aldatzea hori finkatzeko eta ondoriotara eramateko.

2017. Ituntzea

Erakunde publikoen eta gizarte erakundeen arteko lankidetzan bada askatu beharreko korapilo handi samar bat: diru laguntza sistemaren mugak nola gainditu, lankidetzaren egonkortzeko eta juridikoki bermatzeko.

Egungo sistemak baditu ajeak, nagusiki Europako markotik datozkionak. Europan ez da ohikoa gurean dagoen gizarte ekimenaren maila. Erakunde europarren ikuspegitik, susmagarria da diru publikoa ematea erakunde 'pribatu'ei, ez bada egiten lehiaren araudi zorrotza errespetatuz.

Kontua da lehia egingarria dela batzuetan, baina ez beti. Esaterako, hizkuntzaren corpus-a garatzeko ez dauzkagu hiru Euskaltzaindia, lehiari jar ditzakegunak. Dagoen bakarrari eman behar zaio diru laguntza, hiztarmen baten bitartez.

Bestalde, deialdia bera ere ez dago beti onartua araudian, salbuespen zerranda baten aurkitu behar du babes. Eta, behin hori lortuta, ezaguna da deialdi sistemak eskatzen duena: lan handia, deialdia prestatzeko; lan handia, eskaerak aurkezteko; lan handia, eskaerak ebazteko; lan

handia, gastuak zurrizteko; lan handia, helegiteak aztertu ondoren ordainketak egiteko... Inoiz esan izan dut, txantxa tonuan baina oso serio: lan horietan 30 urtez eman diren ordu guztiak biziberritze prozesuan zuzenean eman izan balira, seguru euskararen datuak zati bat hobeak liratekeela.

Era berean, uste dut euskaldunok aldarrikatu egin behar dugula gure gizarte ekimena aberastasun gisa, gure kapital sozialaren osagai garrantzitsu moduan. Balekoa izan da gure berezitasuna araubide orokorrean nolabait sartzeko ahalegina; baina merezi du saiatzea formula segurua-goak bilatzen, propio pentsatuak berezitasun/abertasun hori zaintzeko; gero, noski, formula horiek marko orokorrean kokatu beharko lirateke.

Ikuspegi hau oinarri, ituntzeari buruzko gogoeta bat abiatu du GFAk komunikabideen sektorearekin, EHUko Ikasmirak ikertegi juridikoaren laguntzaz eta Jaurlaritzako HPSren partaidetzarekin. Helburua da egungo sistemari formula alternatiboak bilatzea, izan partzuergoarena, edo erakunde laguntzaileena, edo...

Inguru hurbilean badira adibideak: itunpeko jarduerak badaude hezkuntzan, eta baita osasun esparruan ere. Hauetan badago eskaintza publikoa, eskaintza pribatua eta eskaintza 'kontzertatua' edo itunpekoa. Beste maila batean, badira euskaltegi 'homologatuak', publikoen eta pribatuen artekoak. Kasu guztietan gizarte ekimeneko eragileari aitortzen zaio funtzio sozial bat eta, horren arabera, transferitzen zaizkio diru publikoak, urtero eta prozedura simple batez.

Ikerketaren lehen urratsetan identifikatu dira hiru lan ildo nagusi. Bat da juridikoa, ea zer nolako egitura juridikoa beharko litzatekeen erakunde publikoek eta gizarteek partekatzen duten funtzio sozial hori kudeatzeko; bigarrena, politikoa, alegia zertan datzan funtzio soziala eta nola bete behar duten funtzio hori gizarte erakunde 'homologatuek'; hirugarrena tekniko da, sektorearen barruan zein pisu duen eragile bakoitzak eta, beraz, zein parte dagokion diru banaketan.

Hiru eginkizun hauetan lan egingo da hurrengo asteetan, aukerak bilatzen eta aurkitutakoa adosten. Ez da bat ere segurua altxorren bat aurkitzea, baina saiakerak berak jarri gaitu mahaikide guztiak norabide berean lanean. Hau paradigma aldatzea funtsezkoa da: orain arteko negoziazio dinamika eraldatzen hasi da, kontua ez da dagoeneko *ea batek zer ematen duen eta besteak zer egiten duen emandakoarekin*, baizik *aztertu dezagun elkarrekin zer egin behar den, adostu eta banatu ditzagun egitekoak, eta tira dezagun gurditik batera, iraganeko sokatiran ibili gabe.*

Uste dut euskaldunok aldarrikatu egin behar dugula gure gizarte ekimena aberastasun gisa, gure kapital sozialaren osagai garrantzitsu moduan. Merezi du saiatzea formula segurua-goak bilatzen, propio pentsatuak berezitasun/abertasun hori zaintzeko.

Irizpide hau nagusituko litzatekeen: euskararen diruak nagusiki jardun eta funtzio estrukturaletan erabili behar dira; zerbitzu eta produktu lehiakorrek poltsa orokorretara bideratu behar dira.

2017. Palankak II

Dagoeneko burutu dira bigarren urteko bi lan saio. Iaz identifikatutako palanken gainean egin dugu lan, lehentasunak adosteko eta horietan sakontzeko. Oraindik ez dira emaitzak ondorio bihurtu, baina irten dira ideia eta irizpide zehatzak, bai udazkeneko Putzuberri IIIn erabiltzeko, eta baita 2018ko aurrekontuei begira.

Emaitza zehatza goak aterako dira hirugarren saiotik. Izan ere, saio horretan Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaritzaren aurrekontua aztertuko da, deialdien eta diru laguntzen irizpideak xehetuz eta eztabaidatuz.

Zuzendaritzaren aldetik bi helburu ditugu: lehena da egungo aurrekontuaren egitura eztabaidan jartzea eta alternatiba posibleak mahai-gaineratzea; bigarrena, epe luzeko norabide bat aztertzea, zeinetan irizpide hau nagusituko litzatekeen: euskararen diruak nagusiki jardun eta funtzio estrukturaletan erabili behar dira; zerbitzu eta produktu lehiakorrek poltsa orokorretara bideratu behar dira.

Lehen helburuan, mugakizun argia jarriko diogu ariketari: zer egin diferente diru berarekin. Diru poltsa handitzeko eta denentzat diru gehiago jartzeko ez da partaidetza prozesurik behar; ez eta hori adosteko eztabaida handirik. Kontua da dirua modu alternatiboan erabiltzeko hautuak proposatzea eta defendatzea, aurrez landutako palanken arabera. Hau da, jarduera orokorra eraginkorrago izateko jorratu behar diren bide horietan lehentasunez jarri behar bada dirua, eraginkortasun txikiko zein jarduera sakrifikatu behar diren. Halako hautuak planteatu nahi ditugu prozesuan.

Bigarren helburuari dagokionez, azal dezadan luzeago ideia. Euskararen biziberritze prozesuak bi motatako erakunde ez publiko sortu ditu: prozesuaren baitan funtzio berezia betetzen dutenak, eta zerbitzugintzan dihardutenak. Beti bezala, errealitatea konplexua da; eta bi multzoen arteko marra, lausoegia. Ea bi muturretako adibide bana jarrita zerbait argitu dezakegun.

Mutur batean legoke Euskaltzaindia, hizkuntzaren corpusa garatzeko eta zaintzeko eginkizunarekin. Eginkizun hori bat da, eta bakarra. Ez daude hiru akademia lehian jar ditzakegunak funtzio horretan. Beraz, funtzio hori berriaz ordaindu behar da euskararen poltsatik, hizkuntzaren prozesuan ezinbesteko funtzio bat delako, merkatuak inoiz ordainduko ez duena.

Beste muturrean jar daiteke aholkularitza enpresa bat, euskara planetan dabilena. Honen lanak ere mesede egiten dio biziberritze prozesuari,

noski, baina merkatuak ordain lezake. Enpresek jakin behar dute haien jarduerari mesedegarri zaiola hizkuntza kudeaketa aurreratua barne hartzea, eta erakundeon lana da horretarako animazio lana egitea, lidergoa, diskurtso egokiak eta, zergatik ez, pizgarriak erabilia. Kontua da euskara plana kontratatzen duen enpresa batek ordaindu dezakeela zerbitzu hori merkatu preziotan.

Are gehiago, hizkuntzarekin lotutako zerbitzuak eskaintzeko sortu ziren hainbat enpresa garatu dira baita esparru zabalagoetan ere: partaidetza prozesuak, talde dinamikak, eta *berrikuntza soziala* deituko dugun eremu ia mugagabea. Hain zuzen, hori da euskararen prozesuak behar duen bidea: hizkuntza biziberritzeak berak eskatzen duen eraldaketa soziala berrikuntza terminotara eramatea eta gizarteko egitura ezberdinen bilakaeran puntako traktore bihurtzea. Kasu honetan, lortzen dena ez da bakarrik merkatu irekiak finantzatzea euskara muinean daramaten ekimenak; lortzen da, aldi berean, gizarte irekian lehiatzea bestelako hizkuntza portaera dutenekin eta haiei garaitzea, hau da, euskararentzat esparru berriak irabaztea.

Jarrai dezakegu *in eternum* euskararen poltsatik euskararen eragile guztien artean limosna modukoak banatzen, irizpide zuzenago edo okerragoekin. Baina nire zuzendaritzaren aurrekontua iristen ez den bezala Aldundikoaren % 1 izatera, euskararen eragileen benetako eragina hutsaren hurrena da gizarte zabalari begira; testimoniala, kasu askotan.

Laster egingo dugun eztabaidarekin abiatu nahi genuke ibilaldi luze bat putzu handien bila, lehia irekian jarduteko prest, irabazteko esperantzarekin. Ibilbide hori elikatzeko baliatuko dugu Putzuberri egitasmoaren bigarren fasea; baita hurrengo urteetan udaberriko eta udazkeneko prozesuek ere. Finean, dinamika honen garapenak balio beharko luke aukera gehiago egingarri ikusteko, lehiakorrako nola izan antzemateko, eta lan-kidetza publiko/soziala euskararen mesedetan indartzeko.

2017. Putzuberri II

Behin palanken bigarren fasea amaituta, Euskararen Foroa bilduko da eta bertan ebatziko ditugu prozesuak emandakoa. Tartean, zuzendaritzak proposatuko dio Foroari Putzuberri ekimenaren bigarren fasea egitea udazkenean, behar diren egokitzapenak txertatuta.

Lehen fasearen kontakizunean esan bezala, Putzuberri ekimenaren helburua ziaboga zaila da euskararen gizarte erakundeentzat, eta haien balizko solaskideentzat. Guztiek irten beharko dute egungo 'erosotasun'

Hori da euskararen prozesuak behar duen bidea: hizkuntza biziberritzeak berak eskatzen duen eraldaketa soziala berrikuntza terminotara eramatea eta gizarteko egitura ezberdinen bilakaeran puntako traktore bihurtzea. Gizarte irekian lehiatzea bestelako hizkuntza portaera dutenekin eta haiei garaitzea, hau da, euskararentzat esparru berriak irabaztea.

Diru laguntzen eztabaidak emango du pista garrantzitsua. Baldin eta ikusten bada euskararen etorkizuna lehia irekietan jokatzeko dela, eta ghettoak osagarri direla, orduan indarra sortuko da bigarren txanpa sakonago bat egiteko.

esparrutik. Badaezpada, uler bedi kasu honetan erosotasuna ez dela oparotasuna; prekarietatean ere sortzen da halako egonkortasun bat, zailtasun ezagunetara moldatuz datorrena. Nahiz orokorrean euskararen eragileek prestutasun handia erakutsi duten abentura honetan irauteko, ez da ezkutatu behar une batzuetan nabarmendu zaien bertigoa, zailtasun ezagunetatik ezezagunetara pasatzeko.

Baina ez dago zalantzarik: hasitako prozesuak zentzu osoa izango du iraunkorra bada, ahaleginari eusten bazaio. Ziabogak bere denbora behar du, aldaketa handiak ekar ditzake jomuga aldatzeak, solaskideek ikusi egin behar dute lankidetzaren berriak aukera hobek sortzen dizkiela.

Diru laguntzen eztabaidak emango du pista garrantzitsua. Baldin eta ikusten bada euskararen etorkizuna lehia irekietan jokatzeko dela, eta ghettoak osagarri direla, orduan indarra sortuko da bigarren txanpa sakonago bat egiteko.

Ez da asko falta gaia argitzeko.

2017. Aktibazioa. Lankidetzaren paradigma berria.

Erakunde publikoen eta gizarte erakundeen arteko lankidetzaz ari gara, ez nuke aipatu gabe utzi nahi egunotan egosten ari den beste adibide bat. Honetaz ez nuen Topaldian hitz egin, artean ez zegoelako gaia orain dagoen heldutasun puntuan. Baina iruditzen zait Udaltop jardunaldiaren bueltan egin den iragarpen batek lankidetzaren publiko/sozialaren paradigma berria ere iragartzen duela.

Aurtengo Udaltop jardungo da aktibazioaren gainean. Alegia, tokian toki euskaltzale askori nabari zaion armairutik irteteko gogo gero eta indartsuagoa aztertuko da, eta hori gauzatzeko egiten ari diren bideak, lantzen ari diren tresnak, adosten ari diren estrategiak...

Hain zuzen, aurten bereziki Udaltop ekintzarekin lotzen da, egindako hainbat esperientzia azalduko dira eta haien gaineko ikerketak, ekintza handiago edo eraginkorragotara joateko. Horietako bat da Jaurlearitzako HPSk eta Euskaltzaleen Topaguneak jardunaldiaren bigarren egunean aurkeztuko duten egitasmoa.

Kronika hau idazten ari naizela egitasmoa egosten ari da, sukaldea borbor dago; beraz, ezin dut azken emaitzaz gauza handirik kontatu. Baina ez da emaitza hori aipatu nahi dudana, baizik eta prozedura bera. Aurrekariak aurrekari, lehen aldia da modu esplizitoan erakunde publiko bat eta gizarte eragile bat elkarrekin ari direla anbizio handiko egitasmo

bat lantzen, eta elkarrekin aurkeztuko dutela jendaurrean, jardunaldiaren bigarren egunean.

Orain arteko sokatira edo negoziazio dinamikak gainditze aldera, lankidetzan aritzea da etorkizuneko paradigma. Lankidetzan jarraiazen igurtziak sortuko du aldean arteko konfiantza; eta konfiantza da, aldi berean, ezinbesteko baldintza lankidetzak iraun dezan. Esan behar da, zintotasunari zor, Txibertak utzitako herentzian konfiantza gutxi dagoela batzuen eta besteen artean. Ez da komeni zailtasunak ezkutetzea.

Baina honezkero inor gutxi jartzen du zalantzan aro berri batean bizi dela euskal gizartea. Adibide oso argigarri bat, berriro Udaltop aipatuz: aurtengo edizioan lehen aldiz antolatzaile edo laguntzaile lanetan ari dira euskararen erakunde publiko guztiak: Eusko Jaurlaritza, Nafar gobernu, Euskal elkargoa, hiru aldundiak, EUDEL eta UEMA. Ez dago soberan azpimarratzea zer nolako lankidetzan sarea josi daitekeen euskararen mesedetan erakunde publiko hauekin guztiekin, nola biderkatu daitekeen hizkuntza politiken eragina lankidetzan horren gainean, eta nolako jauzi esanguratsua eman dakioken biziberritze prozesuari lankidetzan sendotzen bada erakunde publikoen eta gizarte erakundeen artean.

Horretara goaz. ●

***Ez dago soberan
azpimarratzea
zer nolako
lankidetzan sarea
josi daitekeen
euskararen
mesedetan
erakunde publiko
hauekin
guztiekin, nola
biderkatu
daitekeen
hizkuntza
politiken eragina
lankidetzan
horren gainean,
eta nolako jauzi
esanguratsua
eman dakioken
biziberritze
prozesuari
lankidetzan
sendotzen bada
erakunde
publikoen eta
gizarte
erakundeen
artean.***